

2024/2025 ikasturterako matrikulazio-kanpaina

Jakinarazten da **otsailaren 7tik 23ra** (biak barne) izango dela **2024-2025 ikasturterako 3 eta 16 urte bitarteko ikasle berriak aurre-matrikulatzeko epea. Matrikulatzeko hitzordua hartu behar da honako [galdetegia](#) betez. [Informazio gehiago...](#)**

Bihar, larunbata, ATE IREKIAK izenez ezagutzen den saioa izango dugu. Aurten, bi saio eskainiko dira: **10:30etan eta 12:00etan. Agerialde eraikin parean** (Alperroburu, 5 zk.) elkartuko gara. Bertan, ikastolako funtzionamendua azalduko dugu eta ikastolan zehar ibiliko gara eraikuntza ikusiz (haurrekin etor zaitezke).



HarEman

Usurbil Harrera Herria izateko lan-ildoaren barruan, komunitatetik iritsi berriei harrera emateko proiektu berri bat sortu da.



Proiektuak HarEman izena du eta mentoretza sozialetik dator, esku-hartze sozialeko metodologia da bi pertsonen artean konfiantza harremana sustatzeko. Pertsona mentoreak bere erreferentzia eta akonpainamendua eskaintzen dizkio inklusioa lortzeko zailtasunak dituen beste pertsona bati. Nola? Denbora partekatzen aisialdian eta pixkanaka-pixkanaka elkar ezagutzen, elkarren arteko harremana elikatuz. Hau da, hartu eta eman, HarEman!

Parte-hartzea borondatezkoa da eta 5-6 hilabeteko konpromisoa eskatzen da. Proiektuak irauten duen bitartean laguntza eta jarraipen teknikoa izango dute parte-hartzaileek

HAUR-HEZKUNTZA

Inauteriak

Gogoratu, laster inauteriak datozela eta zakuak prestatu behar direla. Norbaitek zakuak prestatu gabe baldin badauka eta laguntza beharko balu, tutoreari jakinarazi, mesedez.



LEHEN HEZKUNTZA

LH1. Mailako familientzat oharra

Orain arte haur hezkuntzan erabilitako Inauterietako zakuak etxean badituzue eta ez badituzue behar, gustura hartuko genituzke ikastolan hurrengo urteetarako ez daukatenei uzteko.



LH6. Mailako familientzat oharra

Zumaiako Flysch-era egindako irteeraren kobrantzan akatsa egon zen eta **3,05 €** gutxiago kobratu zenez, datorren ostiralean, **otsailaren 2an**, diferentzia horren kostua kobratuko zaizue errezipo bidez.



LH1. Mailako familientzat oharra

Optometristaren kobrantza bi aldiz egin zen (azaroa eta abendua). Beraz, **gaurko egunez 14 €-ren itzulketak** egingo zaizue.



Irteera LH2

Datorren asteartean, urtarrilaren 31an, LH2koek irteera egingo dute **Donostiako Zientzia Museora**. Irteerak ohiko ordutegia izango du.



DBH

Irteeren kobrantza

❖ DBH3 frantsesa

Otsailaren 2an Bordeleko irteerara joango direnei **40 euro** kobratuko zaie, irteeraren gastuen aurrerapen bezala, ikastolako kontuaren bitartez.

❖ DBH4 eskalatzera

DBH4koak Udaberrian eskalatzera joango dira Hernaniko Santa Barbara auzora. Gipuzkoako Mendi Federazioaren eskutik egingo da eta **5 euroko** kostua izango du. Zenbateko hori, datorren ostiralean, **otsailaren 2an**, kobratuko da errezibo bidez. Eguraldi txarra egingo balu, ekintza barruan (rokodromoan) egingo litzateke eta horrek beste 5 euroko kostua izango luke, baina eguna gerturutzen ari den heinean jakinaraziko zaizue.



Irteera DBH4

Datorren asteartean, urtarrilak 30, DBH4ko ikasleak Donostiara joango dira Oroimen Historikoaren ibilbidea egitera eta San Telmo museoa bisitatzen. Irteeraren helburua gelan landutako Gerra Zibilaren inguruko jakintza gehiago sakontzea izango da. Egun osoko irteera izango denez eta trenez joango garenez, Mugi txartela, hamaiketako eta bazkaria ekarri behar dute.



DBH 4ko ikasleei txertoa

Urtarrilaren 29an, astelehena, Osakidetza DBH4. mailako ikasleei, **Difteria-Tetanosaren aurkako txertoa** jarriko die, aurrez gurasoek horretarako baimena sinatu badute.

